

Intxaurrondo

«Jendeak ez du hiru orduko antzezlanak ikustera joan nahi»

Azkenaldi honetan, umorezko bakarrizketak modan daude. Natalia Juano intxaurrondotarrak horrelakoak egiten ditu Axeri taldearekin.

Gladys Villalba

Nolatan hasi zinen bakarrizketak egiten?

Duela hamar urtetik ari naiz antzerkian, eta kasualitatez hasi nintzen horretan: Errenteriako taberna batean emanaldi bat antolatatu zuten, eta lagun batek nire izena eman zuen parte hartzeko. Ondo ateratu zen, eta orduz gozotik,

horrelako emanaldietan parte hartzen dut.

Axeri taldean zabilta. Entseguak egiteko eta bakarrizketak sortzeko elkartzeko zaretela ala nork bere etxean asmatzen dituzte istorioak?

Etxean prestatzen ditugu, eta gero antzeko ikuspuntuak dituzten bakarrizketekin osatzen dugu emanaldia. Gaur

egungo istorioek arrakasta handia dute; jendeak gustura entzuten ditu, istorio horiek bere bizimodua islatzen dute eta.

Dirudienez, mota honetako lanak modan daude, telebistan, antzerkian... Zergatik gustatzen zaizkio jendeari?

Jendeak ez du hiru orduko antzezlanak ikustera joan nahi, eta gure emanaldiak oso laburrak eta ulerterrazak dira.

Zer behar da bakarrizketak ondo egiteko?

Lehenik, istorioa sinetsi eta bizi egin behar da. Nik ahotsa aldatzen dut, edo eskuekin mugimendu asko egiten ditut, pertsonaia bat sortzeko. Garrantzitsuena pertsonaia zure ordeztu hitz egitea da. Ni lotsatu samarra naiz, baina agertokira ateratu orduko beste pertsona bat bihurtzen naiz.

Zein da gehien gustatu zaizun bakarrizketa?

"Emakumearen ezkondu aurreko agurra", paperarekin erabat bat egiten dudalako. Bestalde, "Test sikoteknikoak" izenekoak ere asko gustatzen zait.

Euskaraz lan egiten ausartzen al zara?

Euskara ulertzen dut, baina hitz egiteko, lotsatu egiten naiz. TOPO antzerki taldean nabilela, papera buruz ikasi nuen behin, eta bi orduko antzezlanak egin nuen euskaraz. Gure emanaldietan, berriz, jendeak parte hartu ohi du, eta ez naiz elkarrizketa bat garatzeko gai sentitzen.

Zein plan duzu udarako?

Lasai egotea. Uda ondoren, antzerkia egiten hasiko naiz berriro. Gaur egun, bakarrizketak aurkeztea zaila da, lehia handia dago eta. Azkenaldian, jende askok prestatzen dituzte horrelako emanaldiak; egoera oso gogorra da.



IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: 943467236.



Arriberri 7 ALIZA (Donostia) Kasoren Kultur Etxea eta Aliza Polikiroldegia ondoan eta autobus ez bazatoz, hobe! Autobus lineak 13, 16, 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA